



ERABARIA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, EHUKo karrerako funtzionarioentzat gordetako Teknikarien eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileen lanpostu hutsak betetzeko lehiaketako oinarrietan jasotzen den epaimahaiko kideak izendatzeko dena. Adierazitako lehiaketarako deia 2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren bidez egin zen.

Gerentearen 2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren bidez deia egin zen erabaki horren l eranskinean agertzen diren lanpostu hutsak betetzeko, bai eta lanpostu horiek esleitu ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak betetzeko ere.

Hirugarren oinarriak dioen moduan, Epaimahaia bakarra izango da eta kide kopuru bakoitz osatua, gutxienez hiru; kideetako bat batzordeburua izango da eta bestea, idazkaria.

Emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua orekatua izan beharko da, salbu eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean aurreikusitako salbuespenetan (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, 3. art.,10. apartatua).

Epaimahaiko kide guztiak karrerako funtzionario izan beharko dira, eta lehiaketako lanpostuak betetzeko eskatzen den titulazio talde bereko edo goragoko kidego edo eskalakoak. Aholkulariak izendatu ahal izango dira epaimahaiak eskatuz gero; ahotsa izango dute, baina ez botorik.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Izendatzea ondoren aipatzen diren pertsonak EHUKo Teknikarien eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako langile funtzionarioen lekualdaketa lehiaketako epaimahaiko kide:

	Titularra	Ordezkoa
Epaimahaiko burua	Maria Begoña Gutiérrez García	Ana Isabel Peña García
Epaimahaikidea	Nerea Aurrekoetxea López	Juan Antonio Sanchez Somovilla
Idazkaria	Alfonso Moreno del Rio	Josu Bidaguren Anduiza

Bigarrena.- Erabaki hau ondoko helbideetan argiratzea:

Intraneten: Langileen Ataria.

Interneten: <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/barne-deialdiak>

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2025eko urtarrilaren 30eko erabakia
(2025eko otsailaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

Javier Varona Guarás
EHUKo GERENTEA